

Egun on:

Kirol Azterlan, Ikerketa eta Medikuntza Zentrotik jakinarazten dizuegu **OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIA ETA DEAREN erabilerari buruzko ikastaro berriak (lehen sorospenak) antolatuko ditugula 2023ko 2. seihilekorako.**

2022an bezala, **Nafarroako Kirolaren Institutuak (IND), KAIMZaren (CEIMD) bitartez, lehen laguntzetan doako prestakuntza sustatzeko konpromisoarekin jarraitzen du.** Ikastaroak KAIMZen egingo dira, programatutako data desberdinetan.

Ikastaro horiek **kirol-jardueretan presentzia fisikoa izatea eskatzen duten lanbideetako batean diharduten langileei zuzenduta daude**, eta, betetzen dituzten funtzioak direla-eta, bihotz-biriketako geldialdian dauden pertsonen lehen arreta emateko aukera handiagoa dute:

- Kirol-monitorea.
- Kirol-modalitateko edo diziplina bateko entrenatzailea.
- Kirol-zuzendaria.
- Prestatzaile fisikoa.

Nafarroan kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen 17. artikulua ezartzen duenez, **goian aipatutako lanbideetako batean diharduten pertsona guztiak, boluntarioek barne, lehen laguntzako prestakuntza egiaztatu beharko dute.**

Plazak inskripzio-hurrenkeraren arabera esleituko dira. Data batean izena eman eta ezin bada joan, gutxienez hiru egun lehenago jakinarazi beharko da itxaron-zerrendako pertsona batek bere plaza bete ahal izan dezan. **NORBAITEK ABISATZEN EZ BADU, EZIN IZANGO DU URTEBETEAN EGIN CEIMD-REN BIDEZ EMATEN DEN PRESTAKUNTZARIK.**

IKASTARO MOTAK:

- **HASIERAKOA:** 6 ordu. 3 ordu prestakuntza teorikoa online eta 3 ordu presentziala (azterketa teorikoa eta prestakuntza praktikoa) KAIMZen. Baimenak 2 urteko indarraldia du. Atal teorikoa aste bat lehenago egiten da norberak bere kabuz.
- **BIRZIKLAPENA:** 2 orduko formakuntza praktikoa eta presentziala. **Hasierako ikastaroarekin batera egiten bada, zati praktikoa 3 ordukoa izango da. ADI!! birziklapena egingo dute duela bi urte hasierako ikastaroa edo birziklapen ikastaro bat egin zutenek.** Ziurtagiria eskatuko da.

2) ORDUTEGIA:

- Praktikaren **ordutegiak:**
 - o **Hasierakoa-Birziklapena** (elkarrekin): arratsaldez bada: 16: 30-19: 30/ Goizez bada: 09: 30-12: 30
 - o **Birziklapena:** arratsaldez bada 16: 30-18: 30/ Goizez bada: 09: 30-11: 30
- **Datak:** [Hemen](#)
- **Tokia:** KAIMZ. Julián Gayarre kalea z/g (16 zenbakiaren aurrean). Iruña [Kokapena hemen](#)
- **Prezioa:** doakoa.
- **Hizkuntza:** euskara eta gaztelania
- **Partaide kopurua:** 24 pertsona
- **Informazioa:** formacionceimd@navarra.es - 848431593

IZEN-EMATE INPRIMAKIA: INSCRIPCIÓN PRIMEROS AUXILIOS - IZEN EMATE INPRIMAKIA

IKASTAROEN INFORMAZIO GUZTIA: TODA LA INFORMACIÓN CURSO PRIMEROS AUXILIOS - LEHEN SORESPEN IKASTAROAREN INFORMAZIOA